

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELORRIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Mugaketako administrazio espedientea

Jakinarazten da, Elorriagako Kontzejuaren Auzo Batzarrak 2026ko uztailaren 28an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, Vitoria-Gasteizko 4. zenbakiko jabetza erregistroan inskribatutako finkaren mugaketa onetsi zela (4900 liburukia, 1464 liburua, 214 folioa, 2/49872 finka, B katastro azpilurzatia, 6 lurzatia, 20 poligonoa, Arkautin dagoena, Vitoria-Gasteizko udalerria, kontzejuarena), jabetza pribatuko 20 poligonoko 7. katastro lurzatiari dagokionez, egin den moduan eta mugaketa aktan eta espedientean agertzen diren eskalako planoetan zehazten den bezala.

Mugaketari buruzko aurreko erabaki ebazlea betearazlea da, eta haren aurrean, eta 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 65. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu Vitoria-Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan; horretarako, bi hilabete izango dira jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, beren eskubideak urratu direla uste dutenek jurisdikzio arrunta ere baliatu ahal izango dute.

Elorriaga, 2026ko uztailaren 30a

Errejidore-lehendakaria

JESÚS MANUEL VÁZQUEZ EXPÓSITO